

EHZ★



EHz Musikatapulta !

Sarrera

Duela 20 urte EHZ-k musika talde amaturrak eta profesionalak taula gainera gomitatzen dituela. Bide hortatik eta artisten garapena sustatzeko, EHZ-k europar lurraldean zabalduko musika lehiaketa, « **EHz Musikatapulta** » antolatzen du, askatasun eskean diren populu eta hizkuntzei zuzenduz.

« Askatasun eskean » diren populuak aipatzerakoan, beren garapenean eta hedapenean mugatuak ala baldintzatuak diren europar kultura biziak ezaugarritzen ditugu.

Gure helburua festibala europako populu eta hizkuntza horien topaketa eta trukaketa hitzordu bat bilakaaraztea da, musika adierazpenaren bitartez.

E.H.Z-ren aurkezpena

Zer da, E.H.Z. ?

Euskal Herria Zuzenean elkarteak urtero 3 eguneko gertakaria antolatzen du : EHZ festibala. 20 urtez, kultur diziplina ezberdinak eta belaunaldiak nahasten dituen gertakari eklektikoa garatu da herri giroan, auzolanean eta balore azkarren inguruan.

Gaur egun, festibala Lekornen (Euskal Herrian lapurdi eta baxenafarroko mugan, – Baionatik 20 minutura) kokatzen da eta 15.000 pertsona inguru biltzen ditu, hainbat ekitaldiren bidez : kontzertuak, konferentziak, karrikartea, haurren xokoa, etab.



Baloreak

Euskal Herria Zuzenean elkarteak balore garrantzitsu eta azkarrak aldarrikatzen ditu :

- Euskal hizkuntza, kultura eta nortasunaren babesa eta sustatzea
- Euskal presoekiko elkartasuna
- Diskriminazio forma guzien aurkako borroka (arrazakeria, sexismoa, homofobia)
- Eskubide zibil, politiko eta giza eskubideen aldarrikapena
- Ingurumenaren defentsa
- Alter mundialismoa eta internazionalismoa
- Kapitalismoaren eta gain kontsumoaren gizarte kritika
- Justizia sozialaren aldarrikapena
- Kontra kulturaren aldarrikapena

EHz-ren helburua

Bi helburu nagusi desberdintzen ditugu:

- Gure proiektuarekin eta helburuekin bat egiten duten eta elkartrukaketan lan egin nahi duten europako egituren arteko sare zabal bat sortu.
- Garapen bidean diren artistak sustengatu, hedatu eta balorizatu.

Parte hartze baldintzak

« EHz Musikatapultan » partehartzeko, artistek hainbat baldintza bete beharko dituzte :

- Amahizkuntzean kantatu,
- Festibalaren balaoreak partekatu,
- Autoekoiztutako artista izan,
- Bere baitako konposaketak bakarrik aurkeztea (bertsiorik ez),
- Musika anplifikatua proposatu (musika folklorikorik ez).



Sariak

EHZ-ren epaimahairen, partaideen eta publikoaren bozen bitartez, halako ekimenak marraztuko dira proiektuan zehar :

- 20 taldek (kantu bana) osatutako konpilazio bat argitaratuko dugu ;
- Talde multzo bati aukera emanen zaio EHZ festibalan kontzertu baten emateko eta horrekin batera komunikazio euskarriak eskainiko zaizkie (kontzertuaren argazkiak eta bideoa).

Proiektuaren partaide ezberdinek sari bereziak eskainiko dituzte kategoria anitzetan. Sari sorpresa horiek denborarekin iragarriak izanen zaizkizue.

Egutegia

- **Urtarrilak 22** : Inskripzio formularioaren ateratzea E.H.Z.-ren webgunean.
- **Otsailak 28** : Inskripzioen bukaera.
- **Martxoak 1**: Publikoaren bozken hasiera EHZ-ren webgunean.
- **Martxoak 20** : Publikoaren bozken bukaera eta konpilazioan sartuko diren taldeen hautaketa.
- **Martxoak 30** : Konpilazioaren argitalpena
- **Apirilak 15** : EHZ festibalan joko duten taldeen hautaketa + sari berezien iragarpena
- **Maiatzak 1** : EHZ festibalaren afitxaren hedapena taldeen izenekin
- **Uztailak 3/4/5** : EHZ festibala



Inskripzio protokoloa

Artikulu 1 :

A/ Euskal Herria Zuzenean elkarteak, bere egoitza soziala « Ary » eraikina, Pilota plaza, 64240 Hazparne-n kokatzen da. 2014 ko urtarrilaren 22etik goiti, uztailaren 5a arte « Musikatapulta » moduko musika gertakari bat antolatzen du : « EUSKAL HERRIRA ZUZENEAN 2015 » izendatua.

B/ « EUSKAL HERRIRA ZUZENEAN 2015 » musika topaketa bat da, askatasun eskean diren populetatik datozen **musika taldeen agerleku izaiteko**.

D/ 20 talde hautatuek EHz 2015 konpilazioan agertuko dira. Konpilazio hori festibalaren webgunean librokiki eta urririk deskargatzeko izanen da. Talde bakoitza engaiatzen da Euskal Herria Zuzenean bere konposizioko abesti/zati baten emaitza, (« *creative common* » moduan).

E/ Zonbait talde gomitatuek izanen dira uztailaren 3,4 ala 5an Lekornen, EHz Festibala-n jotzeko EHz 2015 Musikatapultaren labelarekin. EHz-k garraio eta harrera gastuak prezio finko baten bidez ordainduko ditu. Prezio finko horiek artisten jatorriaren eta kopuruaren arabera kalkulatuak dira (ikus xartaren bukaeran dagoen ordainketa taula, 1.gehigarria).

F/ Gastuen ordainketak banku transferentziaz eginen dira festibalaren ondotik artisten justifikagarrien jasotzearen baldintzarekin. Artistek banku nortasun agiri bat eman beharko dute ordainketa egin ahal izateko. Ordainketak balio du talde kideentzat (musikariak) eta bi bidekideentzat (adb : agentea, argazkilari, soinu teknikari, etab.).

G/ EHz elkarteak gertakariari dagozkion gastuak bere gain hartuko ditu, bertan joko duten EHz taldeei begira :

- Komunikazio kanpaina.
- Behar teknikoak (soinua eta argiak).
- EHz festibalan joko duten taldeen aterpetzea.
- 3 egunetako txartelen banatzea talde partehartzaileentzat.

Nehork ez du lan sari moduko ordainketarik ukanen.



2. Artikulua : Partehartze baldintzak

A/ « EUSKAL HERRIRA ZUZENEAN 2015 », estilo guztietako eta autoproduzituak diren artista guzieri idekia da. **Edizio pasatuetako partehartzaileak onartuak dira.**

B/ Inskripzioa dohainik da.

3. Artikulua : Inskripzio baldintzak

A/ Izena emaitako, artistak behar dute :

1. Inskripzio txostena bete (araudia izenpetu + partehartze orria bete) webgunean diren epeak errespetatuz.
2. Guttinez **3 izenburu originalak** hornitu + Zuzenezko bideo bat.
3. Eszenaren plano bat hornitu + fitxa tekniko bat.
4. Taldearen biografia (euskaraz, ingelesez, gazteleraz edo frantsesez), logoa eta argazkiak lotu.
5. Abestien testuak gehitu (euskaraz, gazteleraz, ingelesez edo frantsesez).

Hori guzia festibalaren webgunean (www.ehz-festibala.eu) bete behar da **2015-ko otsailaren 28a** aitzin.

Inskripzio txostena eskuragarria izanen da 2015-ko urtarrilaren 22a eta 2015-ko martxoaren 5a artean :

- Gure webgunean deskargatzekoa da : www.ehz-festibala.eu

B/ Antolakuntza arazoan gatik igorriko dituzuen idatzi eta dokumentuak ez dizkizue itzuliko.

D/ Inskripzioa ez da onartua izanen epea ez bada errespetatua eta txostena osagabea bada.

4. Artikulua : EHz-ren fase ezberdinak

A/ Urtarrilaren 22tik, 2015-ko otsailaren 28 a arte : izen emaitak.

B/ Martxoaren 1a : Publikoaren bozken hasiera.

D/ Martxoak 20 : Publikoaren bozken bukaera eta konpilazioan sartuko diren taldeen hautaketa.



E/ Martxoak 30 : Konpilazioaren argitalpena.

Konpilazioa interneten dohainik eta libreki deskargatzekoa izanen da. Orduan, artistek 3 jatorrizko musika zati hornitu behar dituzte, eta hauen artean epaimahaiak zati bat hautatuko du konpilazioan agertzeko. Musika zati horiek « creative common » moduan izan behar dira.

F/ Apirilak 15 : EHZ festibalan joko duten taldeen hautaketa + sari berezien iragarpena

G/ Maiatzak 1 : EHZ festibalaren afitxaren hedapena taldeen izenekin

F/ Uztailak 3/4/5 : Aukeratutako taldeen kontzertuak EHZ festibalan.

Konpilazioko 20 taldeen artean, programazio komiteak guttienez 2 talde hautatuko ditu E.H.Z. festibalean jotzeko uztailaren 3, 4 ala 5ean ; finantz eta teknika baliabideen arabera.

5. Artikulua : Epaimahaiaren subirotasuna

Epaimahaiaren erabakiak subiranoak dira eta ez dira dudan ezartzen ahal.

6. Artikulua : Elkartearen ardura

E.H.Z. elkarteak lehiaketaren luzatzeko, entzuteko, aldatzeko edo anulatzeko eskubidea atxikitzen du. Hori gertatzen bada, bere ardura ez da engaiatua izanen.

Lehiaketaren interesan, E.H.Z. elkarteak protokolo horren aldatzeko eskubidea badu.

Kontakt

kontakt@ehz-festibala.eu

GEHIGARRIA 1

Herriak:	Pertsona kopurua		
	1 à 4	5 et +	
Alba / Écosse (Ferry)	250	1000	1250
Armâni / Aroumains	450	450	650
Asturies	140	140	350
Breizh / Bretagne	240	240	440
Catalunya / Catalogne	120	120	250
Corsica / Corse	250	550	750
Cymru / Pays de Galles	250	1000	1250
Éire / Irlande (Ferry)	250	1000	1250
Ellan Vannin / Île de Man (Ferry)	250	1000	1250
Elsass / Alsace	410	410	610
Euskal Herria / Pays basque	50	50	100
Føroyar / Féroé (Ferry)	800	3000	3000
Friûl / Frioul	360	360	560
Gagauz Yeri / Gagaouzie	450	450	650
Galiza / Galice	200	200	375
Kernow / Cornouailles (Ferry)	250	1000	1250
Ladinia / Ladins	360	360	560
Morava / Moravie	560	560	760
Occitània / Occitanie	50	50	50
Prouvenço / Provence	150	150	350
Pridnestrovie / Transnistrie	450	450	650
Rumantschs dal Grischun / Romanches	500	500	700
Rusyn / Ruthénie	1000	1000	1200
Sápmi / Laponie (Avion)	800	1600	2300
Sardigna / Sardaigne (Ferry)	300	600	800
Savouè / Savoie	350	350	550
Südtirol / Tyrol du Sud	500	500	700
Vâl d'Aoûta / Val d'Aoste	500	500	700
Vlaanderen / Flandre	400	400	600
Waloneye / Wallonie	400	400	600